
~ ABADIÑO SAN BLASETAN



Abctd ñu 'n San Blasetan, A.~ er Buserriicn-ruku.: trutrfaun.

Abadiño'n San Blasetan
Abadiño'n San Blasetan
neskazarrak bentanetan
neskazarrak bentanetan
mutilzarrak engañetan
mutilzarrak engañetan
Abadiño'n San Blasetan.

Au diño abestiak.

San Blas eguna berezia da gure erri-erlejiñoan. Janari-edariak, aziak eta olakoak bedeinkatzen dira egun onetan.

Ortik aparte, feri itzala egin oi da Abadiño'n.

Zezeilla zan. Bertan abere ta zalditeri ugaria biltzan da eta jente-aldeetik be ez da txarto egoten.

Aurten be egon naz ni an astegun buruzuria izan arren, makiña bat gizon eta andra batu zan Abadiño'n.

Asteko, erri guztian zear postu ipiñiak egozan eta euskal-baserritarrak egozan alde batetik, gaztaiak, in-txaurrak, ogia, ezta eta ezin aitzu leikezan San Blaseroskiak saltzen. Ijituak edo jitanuak be ez ziran falta. An egozan erropak, lanabesak eta beste gauza asko saltzen. Txoznak be ez ziran falta, bertan amaiketako gozo-gozoa jan al izateko.

Ganadu-aldeetik, era guztietako ganaduak ikusten ziran: Pirinaikak, txarolesak, olandesak, mimosiñak, asturiarrak, turankoak eta abar. Zaldiak be, ugari ego-

zan: pottokak, poneyak, pertxeroiak eta Iasterketarako zaldi bizkorak.

Feria ta merkatuarekin batera ba-egozan beste eskintza batzuk be. Esaterako, goizeko amabietan bertsolariak asi ziran batzokiko ataritik abesten: Anjel Mari Peñagarikano, Mañukorta eta Jose Mari Narbaiza.

Bertsolariak amaitu baizen laster, erri-kirolak.

Egun aretan Bizkaiko errekor barria austera joian "Pato" ermuarra. 150 kiloko arri biribillagaz sei jasoaldi egin ebazan, arteragoko errekorra lau jasoalditan egoala.

Gizon-probak be izan ziran: Untzc bat egin eben 9 minutu eta ogei segundotan. Arria idiak probetarako erabilten dabena izan zan.

Erri-kirolak amaituta, omenaldia egin jaken guda-ostetik ona Abadiño'n izan diran alkate guztiai eta Mikel Zarrabeitia txirrindulari goimaillakoari.

Ganadurik onena eta jenerorik onenak eukezan baserritarrak be sarituak izan ziran.

Abadiño'n, jaia egun osoan egoan. Arratsaldean, esaterako, idi-demak edo probak egozan egun aretan: Tio Motxo, Jabi, Kaiero eta beste askoren idi-buztariak ekin eben dema edo probetan.

Eguna amaitu zan, baiña San Blas jaiari Abadiño'n eutsiteko, gustu onak oindiño or dirau.

ASTER LEGARRETA'K